

# Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
189.zkia . 2006eko abuztua

HONDARRIBIKO UDALA . EUSKARA BATZORDEA . DOHAIN




*3. Alkateren agurra*

*4-7. Jaietako programa*

*15-16. Elkarrizketa: Muara Elkartea*

*20-21. Kantineren irudiak*

*24-28. Kolaborazioak*

*38. Demografia*

## JATETXEA-TABERNA

MAITE

San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19

Gora Ama Guadalupekoa!



BAR CONCHITA

Gora Ama Guadalupekoa!

San Pedro, 33
☎ 943 11 02 01
20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan, gastronomi espezialitate onekin*

---

# kutxa

Gora Ama Guadalupekoa!

---



Aliprox
SUNSUNDEGI

Gora Ama Guadalupekoa!

*Telf. 943 64 15 40*
*Santiago kalea, 17*
*20280 Hondarribia*

---

# BATZOKI

TABERNA - JATETXEA

Gora Ama Guadalupekoa!



· Eguneko menua
· Menu bereziak
· Karta
· Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)

---








Gora Ama Guadalupekoa!

Hawaii

Errebellin kalea 3 behea 20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxa 943 64 44 97



Hamabi urte igaro dira lehenengo agurra egin nuenetik.

Gogoan dut nolako ilusio eta zirrara sumatzen nuen nire baitan Hondarribiaren buruzagitza eta ordezkaritza hartu nituenean, zuetako gehienen konfiantza jaso nuelako.

Gure hiria suspertu eta hobetzeko eta Udalak herritarrei ematen dizkien zerbitzuak zabaltzeko asmo sendoarekin iritsi nintzen.

Horretan egin ditut nire ahalegin guztiak.

Orain, nik neuk askatasun osoz erabaki dut eszenatokitik ateratzeko eta beste edozein herritarren modura izaera anonimoa berreskuratzeko ordua iritsi dela.

Hiru bider jarraian zuen konfiantza eskatzera bultzatu ninduten proiektuetako asko bete dira eta horregatik nire barruko poztasunarekin noa, baina aldi berean, zenbait arrazoi direla medio gauzatzerik izan ez ditugunen penarekin. Ziur nago nire ondorengoak burutuko dituela.

Eskerrak eman nahi dizkiet EAJ-ri hondarribiarren aurrean aurkeztu nauelako eta EA-ri elkarlanean aritu garelako, era berean eskertu nahi diet Korporazioko kide guztiei eta Udaletxeko funtzionarioei beren ezinbesteko lankidetza eta herritarrei beren konfiantza eta begirunea.

Aurten, behar bada, oraindik hunkipen handiagoarekin berrituko dut botoa eta zuek ere urtero bezala gonbidatzen zaituztet, bake eta askatasunean, bakoitzak nahi duen moduan egin dezan.

**Jai Zoriontsuak**

**Agur, besarkada handi bat**

**GORA AMA GUADALUPEKOA!!!**
**GORA HONDARRIBIA!!!**

**Borja Jauregi**

Alkatea

HONDARRIBIKO UDALA

***HONDARRIBIKO HIRI OSO PRESTU, OSO LEIAL, OSO ADORETSU ETA BETI OSO ZINTZOAN 2006KO IRAILAREN 6, 7, 8, 9, 10 ETA 11N GUADALUPEKO AMA BIRJINAREN OMENEZ OSPATUKO DIREN EKINTZEN EGITARAUA.***



**IRAILAK 6 - ASTEAZKENA**

**15:30** Hiriko auzoetan barrena Hondarribiko Musika Eskolaren **KALEJIRA**.
**16:00** Haur eta gaztetxoen **XXXVII. MARGO LEHIAKETA** Gipuzkoa Plazan.
**18:00** Gazteen **XII. GRAFFITI LEHIAKETA** eta haurren **VII. GRAFFITI LEHIAKETA** Gernikako Arbolan.
**18:30 ERRALDOI ETA BURUHANDIAK** kalez kale .
**22:30 KANTINEREN AURKEZPEN-DESFILEA** San Juan de Dios Plazatik abiatuko da "Hondarribiko Hiria" Musika Bandarekin batera. Klink elkarteak antolatua.
**23:30** "Hondarribiko Hiria" Musika Bandaren Jaietako **KONTZERTU BEREZIA** Arma Plazan.
**23:30 ABBA DISKO JAIA**, Bentan.

**IRAILAK 7 - OSTEGUNA**

**11:15 HAURREN DANBORRADA** Mendelu Auzotik abiatuko da eta Amute-Kosta eta Santa Engraziatik igaro ondoren, hiriguneko kaleetan amaituko du bere ibilaldia.
**12:00** Suziri eta kanpai-hotsez Hiriko Jaiei hasiera ofiziala emango zaie.
Bitartean Txistulariak hiriko kaleetan ibiliko dira 1638ko hiri-setiatze oroigarri hartako **TITI-BILITI** doinua joaz.
**12:15 ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK**, Danborradarekin batera, Kasino Zaharretik abiatu eta kalez kale ibiliko dira.
**13:00** Hondarribiko Odol Emaileen Elkarteari **HIRIKO URREZKO INTSIGNIA** jartzea, udaletxean.
**17:30** Gipuzkoa Plazan, **BETIZU** ikuskizuna haurrentzat "Betizuak a ze zirkua".
**18:30** "Hondarribiko Hiria" Musika Banda kalez kale ibiliko da **TITI-BILITI** joaz.
**20:00 TE DEUM ETA SALBEA** Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren Eliza Nagusian, Udal Agintariak bertan direla, Parrokiako Abesbatzak Eslavaren **SALBEA** abestuko du.
Bitartean ohiko deskargak egingo dira. Elizkizuna amaitzean Udalkideek **AURRESKUA** dantzatuko dute Arma Plazan hondarribiar guztien omenez.
Ondoren, Danborradaren kalejira.
**20:00** Guadalupeko Elizan **SALBE** herrikoia kantatuko da. Ondoren, ohiko deskargak egingo dira.

**IRAILAK 8 - OSTIRALA**

**5:00 ALBORADA.**
**6:00** Danborradaren eta "Hondarribiko Hiria" Musika Bandaren **DIANA**.
Jarraian, Hondarribiko Hiriak Guadalupeko Ama Birjinari, 1638ko irailaren 7ko gertakizun dohatsuagatik bere eskerrona azaltzeko emandako hitza betetzea, hiria 69 egunez inguratuta egon ondoren askatu baitzuen.





**11:30** Guadalupeko Ama Birjinaren Santutegian Meza Nagusia, Udalbatza bertan dela.
**23:00 THE BON SKOTT BAND** musika taldearen emanaldia eta ondoren DJ's **PITITA XAGARXAXU ETA JAWATA**, Bentan.

**IRAILAK 9 - LARUNBATA**

**9:00 URANZU** Dultzaineroen **DIANA**.
**9:00** Arma Plazan, **II**. **HIRI ORIENTAZIO LASTERKETArako** izena ematea. Orientazio lasterketen euskal Txapelketarako baliagarria. Adin guztietakoentzako herri proba. (mapa eta iparrorratzarekin ibilaldia)
**11:00 - 13:00 BONSAI ETA SUISEKI** erakusketa Zuloaga Etxean.
**12:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN** ibilaldia
**12:30 SOKAMUTURRA** Kale Nagusian. URANZU dultzaineroen emanaldia.
(14 urtez beherakoek sokamuturrean parte hartzea erabat debekatuta dago.)
**15:00 HOBI TXIKIKO XXXV. TXAPELKETA** San Telmo tiro zelaian.
**17:00 - 20:00 BONSAI ETA SUISEKI** erakusketa Zuloaga Etxean
**18:00 KUKUBILTXO** haurrentzat ikuskizuna Gipuzkoa Plazan.
**19:00 - 23:00 ZARPAI BANDA** txaranga ibiliko da kalez kale.
**19:30** Arma Plazan, **ESENCIA ARGENTINA.** Erritmo eta dantza desberdinek Argentinako tradizio eta folklore aberatsaren berri emango digute.
**22:00 "URAREN MAGIA"** ura, argia eta soinu ikuskizuna Gernikako Arbolan (Harresiak).
**23:00 EUSKADI-KATALUINIA KANTALDIA** Santiago kalean, Joan Isaac eta Gorka Knören emanaldia.
**23:00** Bentan, **PAL KELI** (ex OFunkillo) eta **MAMA LADILLA.**

**IRAILAK 10 - IGANDEA**

**8:00 HOBI TXIKIKO SAN TELMO SARI NAGUSIA** San Telmo tiro zelaian.
**9:00** Goizut Dultzaineroen **DIANA**.
**10:00 Meza Nagusia** Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren Elizan, 1638ko Hiri Setiamenduan hildakoen alde, Udalbatza ere bertan dela.
Aldi berean Hiriko Bandera agurtuko da, eta elizkizunak irauen bitartean ohiko deskargak egingo dira.
Meza bukaeran Parrokiako Abesbatzak Perossiren **LIBERAME** abestuko du.
**10:00 - 14:00** Adin guztietakoentzat **SCALEXTRIC ZIRKUITOAK** Arrantzale auzoan..
**11:00 - 13:30 TRIPULATUTAKO TREN-MODELISMOA**, Markos Deunaren Emparantzan (Puntala).
5 hazbeteko lorategi-tren hau da bidaiariak eraman ditzakeen trenik txikiena. Eguraldi txarra eginez gero, Jostaldi pilotalekura eramango litzateke
**12:00 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN** ibilaldia.
**12:30 SOKAMUTURRA** Bentan
**14:30 ADINEKOEN OMENEZKO BAZKARIA** Ardora jatetxean, Itxaso Orkestrarekin.
**14:30 GAZTEENTZAKO HERRI-BAZKARIA**, Bentan. Jaitan Jaik batzordeak



Gora Ama Guadalupekoa !
Joaquín De Goiburu
943 643 045 • 609 402 162
• Vehículos y Recambios de Ocasión
• Bajo Kilometraje
• Motores Diesel y Gasolina
• Cajas de Cambio
Fax: 943 644 894
E-mail: goiburumotor@goiburumotor.com • www.goiburumotor.com
Pol. Indus. Txiplau, 18 • 20280 HONDARRIBIA (GIPUZKOA)

LENCERIA
XERA
Gora Ama Guadalupekoa !
San Pedro, 5
Tel. 943 64 58 84
HONDARRIBIA



antolatua.
Ondoren bazkaloste musikala Bentan JAIMIÑA taldearekin.
**16:30 - 19:30** Gipuzkoa Plazan, **BINAKAKO II. PUZZLE JAIALDIA.**
Mailak : a) 8-11 urte bitartekoak
b) 12-16 urte bitartekoak
c) 17 urtetik gorakoak
**17:00** Bentan, **TXIPIRON CUP 06** - Patinetez uretara III. jauzi txapelketa.
**17:00 - 20:00 TRIPULATUTAKO TREN-MODELISMOA**, Markos Deunaren Emparantzan (Puntala).
5 hazbeteko lorategi-tren hau da bidaiariak eraman ditzakeen trenik txikiena da.
Eguraldi txarra eginez gero, Jostaldi pilotalekura eramango litzateke
**19:00 BRASILGO BATUKADA, PERFUSION** perkusio taldearekin, San Pedro kalean
**21:30 KALEJIRA** Mexikoko Angeles Mariatxiarekin.
**22:30** Mexikoko Angeles **MARIATXI**aren eta Tenochitlango (Puebla mexiko) folklore dantza taldearen emanaldia, Santiago kalean.
**23:00 JAIMIÑA** berbena taldearen eta **Dj's ANTXETAMINA**ren emanaldia Bentan.

**IRAILAK 11 - ASTELEHENA**

**9:30** Goizut Dultzaineroen **DIANA.**
**9:30 BASERRITARREN EGUNA**. Ganadu, fruitu eta barazki lehiaketa, Zumardian.
**11:30 - 13:30** Gernikako Arbolan (Harresiak) **HAUR PARKE ERRALDOIA.**
**12:00** Zumardian **BERTSOLARIAK**: Sebastián Lizaso, Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano.
**13:00** Jaietako kartel eta argazki lehiaketako, Graffiti lehiaketako, Aste Santu eta Erdi Aroko argazki lehiaketetako eta Balkoi loredunen lehiaketako **SARI BANAKETA** Udaletxeko Areto Nagusian.
**17:00 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN** ibilaldia .
**17:00 IDI-PROBA** Zumardian.
**17:00 - 20:00 HAUR PARKE ERRALDOIA** Gernikako Arbolan.
**17:30 - 20:30 ABIYUAN TXARANGA** kalez kale ibiliko da.
**18:00 PROFESIONAL MAILAKO PILOTA PARTIDUAK** Jostaldi Pilotalekuan:
**1. Partidua: Galarza V-Zubieta // Larralde-Apeztegia**
**2. Partidua: Gonzalez-Goñi III // Xala-Barriola**
**18:30 BASERRITARREN EGUNA** Zumardian, Herri kirola eta trikitilariak.
**19:30etan** Haurrentzako **MENDARIA** Gernikako Arbolan (Harresiak).
**19:00 - 23:00 ABIYUAN** Txaranga kalez kale ibiliko da.
**22:30SU-FESTA** Hondartzan, "Pirotecnia Zaragozana"ren eskutik.
**23:00 ZEZEN SUZKOEN ENTZIERROA** Bentatik Butron Pasealekura.
**23:30 SILIKONAY eta SU TA GAR** musika taldeen emanaldia, Bentan.




ARRETXE
Ciclos ARRETXE
HONDARRIBIA RENTERIA DONOSTIA
ERRENTERIA
Larzabal 14 • 943 34 01 82
DONOSTIA
Zabaleta 54 • 943 28 65 72
HONDARRIBIA
J. Alonso 5 • 943 64 27 77
Mendelu 17 • 943 64 70 58
Gora Ama Guadalupekoa !

# Beste ekitaldi batzuk

**ABUZTUAREN 31TIK IRAILAREN 8RA**
**6:00 eta 8:00** Guadalupeko Santutegian, Guadalupeko Ama Birjinaren **BEDERATZIURRENA**.

**IRAILAREN 1ETIK 15ERA**
Jai Nagusietako kartel eta argazki lehiaketara aurkeztutako lanen **ERAKUSKETA** Zuloaga etxean.

**IRAILAK 1 - OSTIRALA**
**19:30** Hondartza kiroldegian ohorezko mailako taldeen arteko **ESKUBALOI PARTIDUA BIDASOA-IRUN** Kirol Taldea eta **C.B.TEKA CANTABRIA**.

**IRAILAREN 2TIK 16RA**
Gipuzkoa Plazako Arkupe galerian, *Javier Sagarzazu* margolariaren jatorrizko marrazkien **ERAKUSKETA**, Javier Aranbururen "Hirian barrena Hondarribian" izeneko liburuan azaltzen direnak.

**IRAILAK 2- LARUNBATA**
**10:30 "Colombaire" usakume tiroketa** San Telmo tiro zelaian.
**11:00etan HONDARREZKO GAZTELU ETA IRUDIEN XI. LEHIAKETA**. Hondartzan.
**11:30 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN VII. KONZENTRAZIOA**.
San Pedro kaletik abiatuta Arma Plazara joango dira.
**13:30 XXV. GURUTZEONTZIEN ESTROPADA** "Ama Guadalupekoa Saria" Txingudi Badian.
**15:00** San Telmo Tiro Zelaian **V. ARKU-TIRO TXAPELKETA** "San Telmo Sari Nagusia".
**16:00 TXIRRINDULARI PROBA** 12 urtez beherakoentzat Ama Guadalupekoa Ikastetxetik abiatuta.
**17:00** "Hondarribiko Hiria" nazioarteko II. **SPINNING** ekitaldia, Bentan.
**18:00 XXX. GUADALUPERA IGOERA**. Oinezko lasterketa. Maila guztietan. Zumarditik abiatuta.
**19:30** Javier Sagarzazuren jatorrizko marrazkien **ERAKUSKETA ZABALTZEKO EKITALDIA**, Gipuzkoa Plazako Arkupe galerian.
**22:30** Santiago kalean, **BERTSO TXANPA** - estropadak bertsotan - Andoni Egaña, Jon Maia, Anjel Mari Peñagarikano eta Sustrai Colina bertsolariekin.

**IRAILAK 3 - IGANDEA**
**8:00**, **XXXV. HERRI MAILAKO HOBI TXIKI TXAPELKETA** San Telmo tiro zelaian.
**9:00 MOUNTAIN BIKE BTT BIRA TXIRRIINDULARI PROBA**. Hondartza kiroldegitik abiatuta.
**10:30** Jostaldi Pilotalekuan, **HONDARRIBIKO II. PILOTA TXAPELKETAKO** finalak. Esku pilotako modalitatea. Benjamin, alebin eta infantil mailetan.
**11:30** Jostaldi Pilotalekuan, **HONDARRIBIKO II. PILOTA TXAPELKETAKO** finalak. Esku pilotako modalitatea. Senior maila.
**17:00** Gernikako Arbolan, "Hondarribiko Harresiak" **II. LAXOA TXAPELKETA.**

**IRAILAK 16 - LARUNBATA**
**13:00XXV.Ama Guadalupekoa BELAUNTZI ARINEN ESTROPADA**. Iker eta Xabi saria. Txingudi Badian
1. nazio mailako hiru talderen arteko **"HONDARRIBIKO HIRIA" XXV. ESKUBALOI TXAPELKETA,** Hondartza Kiroldegian.

**IRAILAK 17 - IGANDEA**
**10:00 TRIAL-SIN -** Euskadiko txapelketarako puntuatzen duen proba . Espigoian,
**11:30 XXV.Ama Guadalupekoa BELAUNTZI ARINEN ESTROPADA.** Iker eta Xabi saria. Txingudi Badian,

**IRAILAK 24 - IGANDEA**
**9:00 IV ELBARRI SUB SARIA** gutxitu fisikoentzat. (Urpeko altxorraren bila) Asturiagan .

**URRIAK 4 - ASTEAZKENA**
**20:00 "HONDARRIBIKO HIRIA" XXI. SASKIBALOI TXAPELKETA - VIII. TATE SAEZ MEMORIALA** , Hondartza Kiroldegian.

BAR ONDARRIBI
AUKERA HAUNDIA BANDERILA ETA KAXUELETAN
**Gora Ama Guadalupekoa !**
San Pedro, 31
Tel: 943 642705
20280 HONDARRIBIA



# aurkibidea

3 - 7 Jaietako programa
8. Botika eta okindegien txandak
9. Euskara Departamentua
15. Elkarrizketa
20. Kantinerak
25. Jexux Mari Mendizabal
27. Koldo Ortega
33. Gazte Informazioa
36. Ganbarako kutxa miatzen
37. Lehiaketa
38. Demografia

**Argitaratzailea:**
Euskara Batzordea
**Erredakzioa**:
ZIF & Comunicación 943 638128
**Posta elektronikoa:**
zifcomunicación@terra.es
**Publizitatea:**
ZIF & Comunicación
**Kolaboratzaileak:**
Koldo Ortega, Jexux Mari Mendizabal, Ainara Elizondo, Martin Iturbe, Lurdes Zubeldia
**Argazkiak:**
Foto Etxeberria, Hondarribiko Udal Artxibategia
**Maketazioa:**
Usoa Ramírez Melón
**Inprimategia:**
Antza - Zirkuitu ibilbidea 2 - 20160 Lasarte-Oria
L.G. SS 122/86
HONDARRIBIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien ondorioak.

## TXANDAKO BOTIKAK ABUZTUAN ETA IRAILEAN

| | |
|---|---|
| 27- ALMAJANO Mendelu, 26 | 943 640068 |
| 3- ALAMEDA Harresilanda, 9 | 943 645798 |
| 6- IRAOLA San Pedro, 5 | 943 641027 |
| 7- SAGRARIO FIZ Sokoa merkatalgunea | 943 644316 |
| 8- ALMAJANO Mendelu, 26 | 943 640068 |
| 9- ALAMEDA Harresilanda, 9 | 943 645798 |
| 10- ERAUSKIN San Pedro, 22 | 943 641018 |
| 11- MAYI MARTINEZ Alonso | 943 642191 |
| 17- MAYI MARTINEZ Alonso | 943 642191 |
| 24- IRAOLA San Pedro, 5 | 943 641027 |

## TXANDAKO OKINDEGIAK ABUZTUAN ETA IRAILEAN

| | |
|---|---|
| 27- GARMENDIA Portuan | 943 641136 |
| 3- MARTINEZ Kale Nagusia, 17 | 943 641212 |
| 6- ARRATIBEL Mendelu auzoa | 943 641975 |
| 7- GARMENDIA Portuan | 943 641136 |
| 8- MARTINEZ Kale Nagusia, 17 | 943 641212 |
| 9- ARRATIBEL Mendelu auzoa | 943 641975 |
| 10- ARRATIBEL Mendelu auzoa | 943 641975 |
| 11- MARTINEZ Kale Nagusia, 17 | 943 641212 |
| 17- GARMENDIA Portuan | 943 641136 |
| 24- MARTINEZ Kale Nagusia, 17 | 943 641212 |

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean dohainik jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak: ..........................................................................................................

Helbidea:.................................................................................................................

Herria: ....................................................................................................................

UDAL EUSKARA ZERBITZUA HONDARRIBIA

# “Nere sukaldetxoan”

Berri ona dakarkigu aurtengo uda garaiak. Orain dela urte batzuk gure Aldizkariaren kolaboratzaile zintzoa izan zen Lurdes Zubeldia itzuli zaigu.

Dirudienez joan den uztailean "Nere sukaldetxoan" izeneko bere liburuaren aurkezpen ekitaldian Lurdesen inguruan Udaletxeko Areto Nagusian bildu zen herriko euskaltzale eta abertzale andanaren lekukotasun eta samurtasunak, txispa modura, berriz bere idazlanak guri bidaltzeko asmoa eragin zion: ale honetan dator bere idazlan berri bat "gure txardina"ri buruzkoa.

Aupa Lurdes, segi aurrera zure historia, istorio eta gogoeta koloretsuen berri ematen.

Artikuluarekin batera, Lurdes Zubeldiak igorri digun proposamena hauxe da: gure herriko sukaldari anonimoen errezetak, gure aldizkariaren bitartez kaleratzea. Garai batean aldizkari honetan bazegoen "Sukaldeko Txokoa" izeneko atal bat eta bertan Lurdesek berak ere, beste herritar askok bezala, hainbat janari goxo prestatzeko modua erakutsi ziguten, beraz berriro ere Lurdesen bultzadari esker atal hori berreskuratu egingo dugu eta parte hartzera eta zuen platera bereziak nola prestatzen dituzuen irakurleei erakustera animatzen zaraten guztientzat zabalik egongo da.

Herriko sukaldarien sekretuak ezagutzeko irrikitan utzi gaitu Lurdesek, eta berak lehendabiziko pausua eman du, txardina prestatzeko era batzuk erakutsiz.



# Udalak 1925 urteko zenbait grabatu erosi ditu enkantean

Pasatako ekainaren 29an Hondarribiko Udalak Bartzelonako 'Soler y Llach Subastas Internacionales, S.A.' enkante etxean aintzineko grabatu sorta bat erosi zuen. 1925eko grabatu batzuk dira, Louvre museoko Kalkografia Zerbitzuak egindakoa, 'folio imperial' deituriko tamainuan (76 x 58 zentímetro). Sorta osoak, 'Il n'y a plus de Pyrenées. Fete donne au profit des Croix-Rouges Française et Espagnole pour les blesses du Maroc', (Ez dago Piriniorik: Frantzia eta Espainiako Gurutze Gorriaren aldeko festa, Marruecosen hildakoen omenez) du izena. Kobre erako zazpi grabatu dira, oihal kubiertarekin birlotuak eta aurrekaldean erret armaría duelarik.

Tamaina haundiko karpeta gorri baten barnean, Louis XIV eta María Teresa de Austriaren erretratuak ikus daitezke, baita zenbait grabatu ere. Horietako bat Nafarroa eta Frantziako errege Louis XIV eta Espainiako errege Felipe IVaren arteko elkarrizketa da. Beste bat, aipatutako Louis XIV eta María Teresa de Austriaren arteko ezkontza da (Faisaien uhartean ospatu zena). Hirugarren bat Konferentziaren Irlaren plano bat dugu (egungo Faisaien uhartea). Hortaz gain, irlaren beste zenbait grabatu daude, ikuspegi desberdinetatik hartuta.

Mugatutako edizio bat da, orotara 299 ale argitaratu bait ziren. Udalak 1.500 euro ordaindu ditu sorta osoarengatik.



Sorta osoa Bartzelonan erosi du Udalak



Sortan dagoen grabatuetako baten irudia




Grabatuak frantsez hizkuntzan daude




Foto Sistema
ADVANCED PHOTO SYSTEM
ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Gora Ama Guadalupekoa !
Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

# Adingabeen alkohol kontsumoaren prebentziorako kanpaina

Drogamenpekotasunen gaietako zuzendaritza gizarte-kontzientziazio kanpaina bat burutzen ari da EAEko adingabeen alkohol-kontsumoa prebentziorako. Alkohola edaten eman edo saltzen duten herritarrei arduraz jokatzeko eskatzen zaie.

Hondarribiko Udala, Prebentzio komunitarioko udal zerbitzuaren bitartez ekimen honi atxikitzen zaio. Hiritarren ardura, legez definituta dago; Laguntza eta Gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legean zehaztuta dago, hain zuzen ere, II. Azpiatalean ("Edari alkoholdunen eta tabakoaren horniketa eta salmentaren mugak"); 20. artikuluaren 1.a puntuan honela dio: "Ez da onartuko 18 urtetik beherakoei edari alkoholdunik saltzea, ez horren horniketa bideratzea ere".

Kanpaina honek kartel eta pegatinak erabiliko ditu udalerriko establezimendu publikoetan banatzeko. Gai hau aukera ona izan daiteke adingabekoei alkoholik saltzen ez dietenen ideiak sendotzeko, eta saltzen dietenei gogoratzeko ezin dutela halakorik egin.

Eragile ezberdinei deialdia egiten diegu ekimen honetan bakoitzak dagokion ardurarekin parte hartzen laguntzeko. Udal zerbitzuak kartelak banatuko ditu, dena den, ale bat nahi baduzu, pasa zaitez bulegotik 9:00etatik a 14:00etara.



*Kartelaren irudi bat*

# Ikuskizun berezia irailaren 8ko gauerako

PITITA XAGARXAXU y JAWATA ANTI-DJ izango dira irailaren 8an Bentan musika eta alaitasuna jartzeaz arduratuko direnak. Gaueko 12.30etatik goizeko 6.00ak arte dute hitzordua, eta ikuskizun berri eta eder bat emateko prest datoz.

Bere musika 1070. hamarkadatik 2005 arte egindako ibilbide baten laburpena izango da. Bertan, musika komertziala, euskal musika, Hondarribiko taldeen lanak eta nola ez, musika disko delakoa entzun ahal izango dira. Amaitzeko, JAWATA ANTI-DJ-k gure arreta deituko du musika sexy-electro delako ikuskizunarekin.

Agnes djv-ren eskutik ikuskizun berezi bat burutuko da. Nobedade bezala, edozein hondarribiarrari dei egiten zaio, baldin eta bere izena proiekzioan ikusi nahi badu. Horretarako e-mail bat bidali beharko du jarraian aipatzen dugun helbidera: ONYARBIKOJAIAK06@yahoo.es.


*Hondarribiar artistak ikuskizun berezi bat emango du irailaren 8an*

JAVIER OPTIKO
Gora Ama Guadalupekoa !
OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK
San Pedro, 6
Tel. eta Faxa: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA

Gora Ama Guadalupekoa !
ENARA
INMOBILIARIETAN ADITUAK
www.inmobiliariaenara.com
GENERALI VITALICIO ASEGUROAK Rgs. Zbk. 3625
San Pedro 1 Tel. 943 64 39 72
20280 HONDARRIBIA Tel. y Fax 943 64 54 38
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN Tel. y Fax 943 00 46 28

# Herriaren urrezko intsignia emango zaie odol Emaileen Elkarteari

Hondarribiko Udaleko Gobernu Batzordeak hiriaren Urrezko Domina Gipuzkoako Odol-Emaileen Elkarteak Hondarribian daukan delegazioari ematea erabaki zuen , bide batez, hiriko odol emaile guztiei merezitako ezagupena emanez.

Azken urteotan Hondarribiko odol-emaileen delegazioko buruan Ane Aginagalde dago. Pozik ageri zen atzo. "Guretzat, ohore handia  eta sorpresa ikaragarria da, sari hau jaso izana", zioen Aginagaldek. Aldi berean, sari honen meritua "odola ematera etortzen diren hondarribitarrena" dela aitortu zuen Aginagaldek.

Une honetan, Hondarribian zortzirehun pertsona inguru daude odol-emaile bezala erregistratuta. Hileroko lehen ostegunetan, Kasino Zaharrean egiten dira odol-ateratzeak. "Urtean, zazpirehun ateratze inguru egiten ditugu", gaineratu zuen Aginagaldek.

Sari ematea herriko jaietan egingo da, irailaren 7an. Orain artean ezaugarri hau jaso dutenen artean honako hauek azpimarra ditzazkegu: Alberto Lasa Badiola, Txema Olazábal, Martín Ugalde, Nieves Alza, Alfonso Oronoz, José Gogorza, Jabier Busto, Conchita Portu, Miguel Bernedo, José Luis Gamarra, Gurutzearen Alabak, José Manuel Azcue, Enrique Albizu edota Joku Olinpikoetan txapeldun izan ziren Iker Martínez eta Xabier Fernández.



*Irailaren 7an jasoko dute omenaldia emaileek*

# Eneko Merinok egin du jaietako kartel irabazlea

Eneko Merino Sastre, 24 urteko gazte hondarribiarrak, aurtengo jai nagusietako kartela aukeratzeko lehiaketa irabazi du, Atea pasa izeneko lanarekin.




*Kartel irabazlea*

Merinok berak azaldu zizkion aldizkari honi bere lanaren nondik norakoak eta esanahia: "Oso elementu gutxiko kartela da, baina guztiak ere esanguratsuak. Eliza nagusia eta Santa Mariako arkua, hiriaren ikur ezagunak dira eta aldi berean, jaietakoak ere bai", esan zuen Merinok.

Koloreen aldetik, Eneko Merinok argi ikusi zuen "jaiaren koloreak zuria eta gorria direla. Beraz, hiriaren ikur fisiko direnak eta jaiaren kolore sinbolikoak elkartzen dituen lana da kartel hau", dio Merinok.
Diseinu industrialeko ikasketak amaitzeko puntuan dagoen Eneko Merino pozik azaldu zen jasotako sariarekin. Dirutan, 650 euro poltsikoratuko ditu eta, gainera, bere lana herriko kale eta dendetan zein jaietako programaren azalean ikusi ahal izango du.

Bigarren saria, 350 eurokoa, Gerardo García Gonzálezek aurkeztutako Deskargak izeneko lanarentzat izan da. Guztira, lehiaketa honetara 27 lan aurkeztu dira aurten.

Irailaren 6tik 11ra egingo diren jaietako kartela aukeratu duen epaimahaia Javier Sagarzazu margolariak, Borja Jauregui alkateak, zenbait zinegotzik eta Marilis Goñi Kultura arloko teknikariak osatu dute.






# Jostaldi 2007 amaierarako prest egotea espero da

Hondarribiko Jostaldi frontoi zaharraren berriztapena 2007 herriko jaietarako prest egotea espero du Udalak.



*Jostaldi kiroldegiaren barne egitura aldatu egingo da*

Aspaldi zaharkituta dagoen frontoiaren berriztapenerako proiektuaren barne, harmailen altuera egungo legedia bete ahal izateko egokitzea, zorua berritzea eta kantxaren ezkerreko pareta konpondu eta margotzea daude. Honetaz gainera, ekintza nabarmenena eraikinaren estalkia berri- tzea izango da.

Lan guzti hauek Jostaldiko barnealdeari dagozkionak dira. Kanpotik ere, fatxadari tratamendua emango zaio, baina eraikinak berak ez du bere itxuran aldaketarik jasango.

Lanak Ibargoyen enpresak egingo ditu 2,3 milioko aurrekontuarekin, baina ez dira berehala hasiko. Lehenik, proiektuaren xehetasun zenbait definitzeko denbora beharko da eta ondoren bai, sei hilabete inguru irautekoak diren lanak hasiko dira.

Modu honetan, aurtengo jaietan ere, irailean, urteroko profesionalen pilota partidua egin ahal izango da Jostaldin, eta gerora, udazkenean zehar edo urte berriaren hasierarako, obrak hasiko dira. Honela, 2007ko jaietan, frontoi berrituan egingo dira pilota partiduak.

Jostaldirekiko lehen asmoa frontoi berria egitea izan zuen Udalak, baina kostua altuegia zela eta ideia bertan behera geratu zen.

# Futbol trebatze ikastaroek 120 gazte bildu dituzte

Laugarren urtez jarraian, Hondarribia Futbol Elkarteak futbol hobekuntza ikastaroak antolatu ditu. 6 eta 14 urte bitarteko neska mutilentzat antolatutako ikastaro hauek oso arrakastatsuak bilakatu dira, gaztetxoen partehartzeari eta mailari begiratzen badiogu.

Bi txanda desberdin antolatu dira, hamar egunetakoa bakoitza. Bakoitzean talde desberdinak antolatu dira, orotara 120 gaztek parte hartu dutelarik. Horretarako Futbol Elkarteko arduradunek belar naturaleko zelaia erabili dute, astelehenetik larunbatera, goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Datorren urterako prestakuntza ikastaroak antolatzen hasi dira jadanik Elkartean. Laugarren edizio honetan izandako arrakasta ikusita, ez dute batere lan erreza izango maila hobetzea.



*Ikastaroak bere laugarren edizioa bete du*

EXPERT
GEURIA
SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14
ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86
Gora Ama Guadalupekoa !
San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA



# Isabel Arrillagak irabazi du Emeki Elkartearen Margo Lehiaketa



Emekiren margo lehiaketan parte hartu zuen artista baten irudia

Urtero Emeki Elkarteak antolatzen duen Margo Lehiaketa abuztuaren 13an ospatu zen. Jadanik erabat finkatuta dagoen lehiaketa honetan bete beharreko baldintza nagusiena partehartzaile bakoitzak Hondarribiko tokiren bat aukeratu behar izatea da.

Aurten parte hartu duten artistak ia ehun izan dira, egun honi xarma berezia ematea lortu zutelarik, edonon ikus baitzitezkeen margolariak. Helburua, hiriko toki berezienak, paisaiak eta monumentuak nabarmentzea da.

Lehiaketaren epaimahaia honako hauek osatu zuten: Susana Zaldivar, Enrique Albizu, Fernando Mikelarena, Jose Gracenea, Isabel Apaolaza, Conchi Pascua eta Maite Gorostidi. Hartutako erabakiaren arabera, honako hauek izan ziren sarituak:

1. Saria: ISABEL ARRILLAGA (IRUN)
2. Saria: JOSE RAMON GUERRA (GORLIZ) BIZKAIA
3. Saria: ALEJANDRO ORDOKI (LESAKA) NAFARROA
Akzesita: EVA MARIA RAMOS (DONOSTIA)

# Herri Giroaren XVII. ekitaldi arrakastatsua

Herri Giroaren ekitaldi berri bat ospatu zen abuztuaren 20an Alde Zaharrean. Duela hamazazpi urte sortu zen jarduera hau abuztuko egunik ederrena izan zen eguraldi aldetik behintzat, Hondarribiko Estropaden Ikurriñarekin batera eguzki egun bakarrak izan dira eta.

Jende ugari bildu zen Arma plazan goizeko lehen orduetatik. Han ikusi eta gozatu ahal izan zuten larruzko produktu, egurrez egindako sukaldeko tresnak, zeramika jokoak, janari mota desberdinez gainezka zeuden saltokiak, musika, dantza... Kaleko animazioa Zubietako Zanpanzarren ardura izan zen. Alde Zaharrean aritzeaz gain, San Pedro kalera ere jaitsi ziren, bertokoen eta turisten atentzioa erakarriz.

Goierriko taloak salgai zeuden tokitik hurbil jarri zituzten kupelak Saizar sagardotegikoek. Denetara 300 litro sagardo banatu ziren, jendeak asko eskertu zuen asmo honetan.

Eguerdi aldera euskal dantzaz gozatzeko aukera eskaini zuten Meakako Adixkideak taldekoek. Plaza topetaraino bete zen dantza talde berezi hau ikusteko. Partaide denak 65 urtez gorakoak ziren.



*Jende ugari hurbildu zen Arma plazara egun osoan*






# MUARA ELKARTEA

**Igor Enparan**



***Elkartea sortzea erabaki zutenetik urte gehiegi iragan ez diren arren, Muara elkarteak kulturaren alde gogoz dihardu lanean. Halaxe, elkarte honek Bordari kalean duen egoitzaz baliatuz eta bertako kideek egiten duten ahaleginari esker, Igor Enparanek, Muarako ordezkari denak, ondorengo lerrootan aipatuko ditugun kultur ekintzak bideratu ahal izan dituztela kontatu digu, beste hamaika konturekin batera.***

**Hondarribian elkarte asko dago, baina berrienetarikoa Muara da, ezta?**

Bai; Muara duela zortzi urte sortu zen eta Hondarribian sortutakoen artean azkenetarikoa da. Hemengo elkarte frankorekin alderatzen badugu, gure elkartea gazte samarra dela esan daiteke.

**Zerk bultzatu zintuzten elkartea sortzera?**

Biltzen zen talde bat bazegoen, baina ez zuen elkarte gisa funtzionatzen. Elkarte bat sortzeko beharra zegoen, taberna baten premia ere bai, eta azkenean, gaur egun daukagun lokala eskuratu eta horrela jaio zen Muara. Geurea kultur elkartea da; taberna eta sukaldea ere badauzkagu, baina erabilera gastronomikoa ez dugu gehiegi bultzatu.

**Nola moldatzen zarete Muarakook ekintzak antolatzeko?**

Bost lagunek osatzen dugun lan talde bat ari da lanean ekintzak antolatzeko. Elkarte askotan ez bezala, gureak ez du ez lehendakari eta ez bururik; elkarteko bost lagun biltzen gara eta elkarren artean banatzen ditugu zereginak. Horrekin batera, bazkideen laguntza ere jasotzen dugu eta zenbait konturen gestio edo kudeaketa beraien esku geratzen da.






**Zaila al da elkartea aurrera ateratzea?**
Bai, arlo ekonomikoan batez ere. Lokala ordaintzen oraindik ez dugu bukatu, nahiko justu ibiltzen gara beti eta laguntzak eskatu behar izaten ditugu. Ekintzaren bat antolatzen badugu, dirulaguntzarik jasotzeko modua bilatzen aritzen gara.

**Elkarte berria izan arren, bazkide mordoxka izango ditu Muarak... Ondo konpontzen al zarete elkarrekin?**
Orain bertan bazkide kopurua 125-130 lagun ingurukoa da, eta elkarte askotan bezala baditugu gure arazoak, baina tirabirak izatea ez da harritzekoa, pertsonen arteko berdintasun-desberdintasunek sortzen baitituzte leku guztietan gorabeherak. Azken boladan daukagun arazo nagusia bazkideen partehartze urria da. Gero eta lagun gutxiagok hartzen du parte bileretan eta ekintzetan.

**Bazkide izateko zein dira baldintzak?**
Hondarribikoa izatea, kultur ekintzetan parte hartzea eta ideia berriak edukitzea. Alde horretatik ez dugu muga jakinik jartzen, baina argi utzi nahi nuke gure elkartea ez dagoela erabilera gastronomikora mugatuta.

**Aipatu duzunez zuen elkartea ez da, beste asko bezala, sukaldera muga- tzen. Zein dira, bada, antolatzen dituzuen ekintzak?**

Azken urteotan hitzaldiak, bideo emanaldiak eta uda partean kontzertutxoren bat antolatu izan dugu. Orain, berriz, eztabaida bat egin nahian gabiltza; Puerto Ricoko euskal etxeko lehendakariarekin antolatzekotan gara eztabaida.

**Asmoa ez da batere txarra, baina halakoak bideratzeko laguntzak beharko dituzue?**
Bai; udalak unean uneko laguntzak luzatu izan dizkigu batez ere azpiegitura aldetik (kontzertuak egiteko argia, oholtza... eskura jarri izan dizkigu). Orain arte udalarekin komunikazio ona eta jarraitua izan dugu, eta aipatu berri dizudan eztabaida aurrera eramateko behar dugun laguntza emateko ere prest agertu da. Horretaz gain, bazkideen laguntza ekonomikoa ere jasotzen dugu, baina, oro har, elkarteak ez du laguntza-iturri finkorik.

Muara elkarteko bazkide izan nahian dabilen edonori zuzenduta edo bertako ekintzetan interesa duten guztien argigarri, hona Igorren hitzak eta azalpenak. Informazio gehiago behar izanez gero, elkartera jo eta gustura hartuko zaituztete.



*Elkartearen irudi bat*






# Garaipenak bata bestearen atzetik arraunean

Hondarribiak etxean irabazi zuen bere bandera eta bi egun geroago, Gipuzkoako txapeldun suertatu zen Getarian.

Polita da etxean irabaztea. Zaleen aurrean. Abuztuaren 6an, igande eguerdian, eguzkipean. Fresko-fresko. Zirraragarria. Hondarribiko arraunlarien azalak oiloaren ipurdiaren tankera hartu zuen. Bai, etxean San Miguel Ligako hamargarren estropada irabazi zutelako. Bai, jada bosgarrena delako. Bai, lidertza sendotu dutelako. Baina batez ere, azken luze ederra, zoragarria egin zutelako. Pedreñak, lau segundoko aldea zuen helmugarako bidean, baina Ama Guadalupekoa ontziak bizpahiru txanpa jo zituen azken metroetan, garaipena lortzeko.

Txanda nagusiko lehen luzea ikusita, Castrok bere bigarren bandera lortuko zuela zirudien. Ziabogan ontzi bateko aldea atera zien nola Hondarribiari ala Pedreñari. Maniobra egiterakoan, baina, Jose Ramos Carasa uretara erori zen. Irabazteko aukera guztiak galdu zituen orduan La Marinerak. Hirugarren ziabogan, gainera, euren ontziko beste arraunlari bat erori zen uretara. Hau da, 11 arraunlarirekin bukatu zuten estropada. Halere, indartsu. Gutxigatik ez zuen egin Orioren aurretik.

Castrok zorte txarra eduki zuen, eta Oriok, berriz, bezperako garaipenaren biharamunarekin arraun egin zuen. Hondarribiak eta Pedreñak beren aurkari nagusien zorte txarra eta txakalaldia baliatu zituzten. Estropada guztian parean joan ziren. Gehienetan, Hondarribia aurretik. Azken maniobratik, baina, Maria ontzia hobeto irten zen. Di-da baten lau segundo jan zizkion Ama Guadalupekoari. San Miguel Ligako bere bigarren bandera irabazteko bidea hartu zuen Espainiako ontziak.

Baina Ama Guadalupekoak ez zuen amore eman. Joseba Amunarriz patroiak ondo hartu zituen pare bat olatu, eta arraunlariei bizpahiru txanpa jotzeko agindu zien. Esan eta egin. Eman eta eman. Minutu bakar batean lau segundo jan zizkion Pedreñari eta ziztu bizian sartu zen helmugan. Zoramena ontzia barruan eta zoramena espigoian. Pedreña sei segundora heldu zen. Harrituta.





*Ezkerrean Hondarribiko Ikurriñaren 3. txandaren hasiera txanpa. Erdian, Hondarria eta Pedreña nor baina nor, eta eskubian, Ama Guadalupekoa irabazitako banderarekin jarraitzaileak agurtzen.*





**Self -Service**

**ONDARRAITZ**

**Gora Ama Guadalupekoa !**

Butrón Pasalekua

**Tel.: 943 64 27 99**

**20280 HONDARRIBIA**

**CANTINA GUADALUPE**

Gora Ama Guadalupekoa !!

-Menú del día
-Carta
-Terraza

**Montaña, 27 ▪ Tel. reservas 943 64 12 11**
**HONDARRIBIA**

**Gora Ama Guadalupekoa !**

arroka berri
restaurante

Higer Bidea, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com

**Alimentación**
**LUR-GORRI**

**Gora Ama Guadalupekoa!**

**Ramón Iribarren, 24 - HONDARRIBIA**
**Tel. 943 64 22 08**



**HELADERIA - CAFETERIA**

**AQUARIUM**

Paseo Butrón, 20
**HONDARRIBIA**
Tel.: 943 64 48 07

**Gora Ama Guadalupekoa !**

**EDERKI**
**JANTZIAK**

San Pedro, 4 - Tel. 943 64 03 50
**20280 HONDARRIBIA**

**Gora Ama Guadalupekoa !**

Joanetik joaki,
Eldutik elduki,
eta jantzi polita
ederretik Ederki.

**RAFAEL**
TABERNA · BAR






**Gora Ama Guadaplupekoa!**

***San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14***
***20280 Hondarribia***




C/ Zuloaga, 6 bajo
Hondarribia

**GORA AMA GUADALUPEKOA!**

Tel. 943 641 851

# Elena Arbelaizek denboraldi ona iragarri zuen



Mendeetako usadio honek urteko arrantzaldirako aurreikuspenak baldintzatu ditu berriro ere. Honela, Elena Arbelaizek erdietsitako marka berriak, azken hilabeteetan marinelek pairatutako egoera latza atzean utzi eta etorkizunera begira itxaropentsu utzi ditu. Bitartean, atunetan dihardute arrantzaleak, inoiz baino harrapaketa gehiagorekin, baina aspaldidanik saldu den preziorik merkeenarekin.

Arrantzaleen Kofradiako Kutxa entregatzeko usadioaren atal berri bat bizi izan zen, iragan uztailaren 25ean. Baita marinelak etorkizun esperantzagarri baten aiduruz utzi ere. Izan ere, Elena Arbelaiz Goyogana, kutxa entregatzeko aurtengo arduradunak bere buruari emandako 63 itzuliak pozik utzi zuen arrantzaren mundua. Elena Arbelaizek berak aitortu du, hiru astez entrenatzen aritu dela ekitaldian ahalik eta hoberen egin ahal izateko. "Aurreko astean buelta bikoitzak eman nituen", azaltzen du. Baina uztailaren 25ean egin behar zuen bidea osatu gabe, noski.

Egiazko egunean, Parrokiko Sakristian Kofradiaren urteko emaitzak irakurri ondoren, Hermandaderako bidea hartu eta Musika Bandaren doinuekin batera gira eta bira aritu zen. Garai batean, kutxa, Kofradiako erlikiak barruan zituela, botere aldaketaren sinbolo zen eta abade zaharraren etxetik berriaren etxera eramaten zuen herriko neska batek. Gaur egun 11 kilotako Kofradiako arkoi zahar haren barne, zenbait objetu eta urteko harrapaketen balantzea daramazki kutxa eramaileak. Guztira 18 bat kilo pisutsu.



**Danborrada**
Izaskun Arbelaiz Alegria



**Musika Banda**
Edurne Jauregi Sagarzazu



**Zaldizkoak**
Arantxa Martínez Etxebeste



**Herrikoa**
Ana Parada Acevedo



**Montaña**
Mariasun González Lasa



**Semisarga**
